# Denbora-

## 1 Hizki salda

Gustuko al dituzu autoak? Hala bada, erraz bilatuko dituzu hizki salda honetan 8 auto markaren izenak. Ez pentsa horren erraza denik!

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| W | O | F | L | Ñ | V | I | G | H |
| A | C | I | T | R | O | E | N | B |
| Y | D | A | S | E | L | G | I | P |
| E | U | M | E | C | K | U | S | O |
| N | O | D | A | R | S | I | S | P |
| U | F | I | F | A | W | M | E | E |
| F | I | A | I | N | A | B | A | Z |
| X | A | N | A | T | G | I | K | A |
| R | T | R | O | V | E | M | I | P |
| O | P | E | S | R | N | I | S | S |
| V | T | B | E | N | I | Z | A | O |
| E | H | U | N | I | R | F | O | R |
| R | E | N | A | S | E | A | T | O |
| D | A | E | W | S | N | V | O | L |
| S | C | A | N | A | I | S | S | A |
| C | I | R | S | N | T | M | E | Y |
| U | E | P | Ñ | V | O | L | V | S |
| R | V | O | L | K | S | W | A | E |
| O | O | P | E | I | E | I | U | A |
| V | L | E | B | R | A | I | D | N |
| E | V | L | U | J | R | U | I | S |







## 3 Kopiatu koadroz koadro

Ilargia inoiz baino ederragoa zegoela eta, argazkia atera dio Izarnek. Irudi berdina marrazteko gai izango al zinateke?

## 2 Irudiak ordenatu

Josuk, oilategira joan denean, arrautza hautsia topatu du. Ordenatuko al zenituzke irudiak arrautza osorik zegoenetik txita jaio arte?



# -pasa

## 4 Puntuak lotu

Amaitu du Ainhoak marrazkia. Zer irudikatu ote du?

Puntu guztiak lotzen badituzu, zer marraztu duen jakingo duzu.



## 5 Sarrailak

Amak, badaezpada, sotoko giltzaren bi kopia eman dizkio Tomaxi. Giltza multzo honi begiratuta, sotoko giltza zein den ba al dakizu?



Erantzunak: **1.-** Seat, Nissan, Citroen, Opel, Rover, Audi, Volkswagen eta Fiat. **2.-** E, C, D, A, B, F. **4.-** Eguzkia. **5.-** 3 eta 5.

## Keinuak eta galletak

Barre ederrak egingo dituzu joko honekin. Keinuak egitean datza gakoa. Sari gisa, berriz, galleta gozo bat jasoko duzu.



1. Jokalari guztiek eskuak bizkarrera eramango dituzte, eta zerura begira jarriko dira.
2. Gorantz begira daudenean, galleta bat jarri behar zaie kopetan. Behar bezala kokatuta daudenean eta galleta kopetan dutenean hasiko da jokoa.
3. Jokalariaren zeregina galleta ahora eramatea izango da. Horretarako, ordea, keinuez baliatu beharko dute; eskuak erabiltzea debekatua dago.
4. Galletari kosk egiten dion lehen jokalaria izango da irabazlea. Jokoaren helburua, ordea, jokalariek galleta ahoratzeko egin behar dituzten keinuak eta jartzen dituzten aurpegi xelebreak ikustea izango da. Ederki pasatuko duzula ziurtatzen dizugu.